

Hazi transgenikoen mataza

Landatutako azalera eta lortutako barietateak kontuan hartuta, ukaezina da transgenikoek arrakasta izan dutela. Urtetik urtera, gero eta azalera handiagoa hartzen dute, gero eta herrialde gehiagotan. Eta gero eta barietate gehiago ari dira lortzen, gero eta espezie gehiagorenak, gero eta ezaugarri bereziagoekin. Alabaina, izen txarra dute, eta, Europan, bereziki, aurkakotasun handia piztu dute transgenikoek.

Oro har, Europako kontsumitzaileak ez du transgenikorik nahi, eta, Europako Batasunak haiek landatzea baimentzen duen arren, gobernuek muga zorrotzak jartzen dizkiete landaketei. Horren adibide dira apirilean Alemaniak ezarritako luzamendua eta Eusko Jaurlaritzak onartutako dekretua. Nondik begiratzen zaion, beraz, porrotaz hitz egin liteke, transgenikoak eta arriskua —edo, zuzenean, kaltea— berdindu egin baitira pertsona askoren buruetan.

Ez da harritzekoa, dena den. Batetik, transgenikoak landatzea bultzatzen duten konpainia handiek mesede eskasa egin diote bioteknologiari, besteak beste, ilunak baino ilunagoak direlako komunikazioaren esparruan. Bestetik, merkataritza- eta ekoizpen-ereduaren mataza sozioekonomiko eta politikoaren erdigunean bertan jarri dituzte transgenikoak. Hain zuzen ere, ekoizpen-eredu bidegabe baten erreminta ezinbestekotzat jotzen dituzte batzuek transgenikoak. Eta salatzen dute haiek ekoiztea edo ez ekoiztea ez dela askotan aukera. Beste batzuek, berriz, fokua haietan jarrita dagoela nabarmentzen dute, baina arazoa ez direla berez transgenikoak, gure garapen-ereduaren miseriak baizik.

Teknologia maltzurak ez, erabilera maltzurak daudela esan ohi da, eta, topikoa izanagatik ere, beharko genuke bereizi zein diren transgenesiari lotutako arriskuak, eta zein ekoizpen-ereduaren gaitzak. Lanak emango ditu horrek, hain dago estu korapilatuta hazi transgenikoen mataza; baina transgenesia aukera izan dadin guztiontzat, beste aukerarik ez dago.

**Eider Carton Virto**

*Elhuyar Zientzia
eta Teknologia
aldizkariaren
zuzendaria*



18

Australiako koral-hesia

Australiako ipar-mendebaldean dago bizirik dagoen munduko koral-arreziferik handiena. Paisaia ikusgarria benetan. 2.000 kilometroan, sakonera txikiko ur gardenek agerian uzten dute hondoko ekosistema aberatsa.

TRANSGENIKOAK hazien auzia

Gaur egun egiten diren sojaren hiru laurdenak eta artoaren laurden bat transgenikoak dira. Hori ikusita, badirudi transgenikoek arrakasta handia izan dutela nekazaritzan. Alabaina, eztabaida ere piztu dute, politikan, ekonomian, ingurumenean eta beste arlo batzuetan dituzten edo izan ditzaketen ondorioengatik. Hor dago auzia.

32



22

Claudio Palomo

Claudio Palomo EHuko Kimika Organikoko katedradunak jaso du 2008ko Euskadi ikerketa-saria, Zientzia eta Teknologiaren modalitatean. Epaimahaiaren ustez, Palomo irakasleak oso ekarpen garrantzitsuak egin ditu sintesi organikoan.



Laborategiko izar marraduna

Zebra-arraina da ikerketarako animalien artean zabalkunde handiena izaten ari dena, nahiz eta ez den sagua edo arratoia bezain ezaguna. Zabalkunde horretan lagunduko du DAREnet plataformak, zebra-arrainaren erabilera bultzatzeko eta lan egiteko moduak bateratzeko sortu baita.

26



Nanoikerketarako neurri megazehatzak

Nanozientzia eta nanoteknologia ikertzeko eraiki zuten CIC nanoGUNE Donostia erdi-erdian; hamaika berezitasun ditu eraikinak, hirirean eguneroko martxak ez dezan eragozpenik izan ikerketan.

46



30

Web semantikoa

Googlen Texas hitza sartu, eta milaka orri jasoko dituzu bueltan. AEBko estatuari buruzkoak, musikataldeari buruzkoak, liburuari edo beste zerbaiti buruzkoak... Denak batera agertuko zaizkizu, eta zurea izango da bereizteko zeregina. Bilatzaileak gai izango balira edukiaren esanahia bereizteko, akabo arazoa! Bada, hori eta askoz gehiago ekarriko du web semantikoak. Adimentsu bilakatuko du sareen sarea.

aurkibidea]

4 FLASHA Sumendiak soja-hostoetan

6 ALBISTEAK

18 MUNDU IKUSGARRIA Australiako koral-hesia

22 ELKARRIZKETA Claudio Palomo

26 Laborategiko izar marraduna

30 MUNDU DIGITALA Web semantikoa

32 **TRANSGENIKOAK** hazien auzia

34 Transgenikoen matazatik tiraka

41 Haziak neurri teknologia

44 Aukeran ez

46 Nanoikerketarako neurri megazehatzak

ANALISIAK

50 Unibertso jaioberria ezagutzeko mugak. JON URRESTILLA.

52 Estatistika eta egia. JUANITO ETXEBERRIA.

54 GOGOETAN 21. aminoazidoa

56 ISTORIOAK Ilargi-iraultza

60 LIBURUTEGIA 3 pertsonaia teorema baten inguruan

61 UMORE GRAFIKOA Satorrak Ilargian

62 ASTRONOMIA

64 HURRENGO ZENBAKIAN